



## EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO TERMINOLOGIA BATZORDEAK 2008. URTEAN ZEHAR ONARTUTAKO 20 HIZTEGI TERMINOLOGIKO ARGITARATZEKO URRATSAK EGIN DITU

Honenbestez, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoak 457.066 termino biltzen ditu.

Osasunaren Munduko Erakundearen “Funtzionamenduaren, desgaitasunaren eta osasunaren nazioarteko sailkapena (FNS)” ere euskarara egokitu da.

Egun on eta eskerrik asko etorri zareten guztioi!

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzorde-atal Bereziak 2008an egindako lanaren emaitza aurkezteko bildu gara hemen. Hain zuzen ere, Batzordeak aztertu eta ontzat emandako hiztegi terminologikoen berri eman nahi dizuegu gaur. 2008an 21 hiztegi terminologiko onartu ditu. Gaur 20 hiztegiaren aurkezpena egingo du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. 21. hiztegia Ingurumen Sailaren enkarguz egina da, “Ingurumen hiztegia”, hain zuzen ere.

*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak* (EBPN, 1998), besteak beste, Terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen. Hori betetze aldera, bi ekimen garrantzitsu burutu zituen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: batetik, 2001ean, EUSKALTERM, Euskal Terminologia Banku Publikoa sortu zuen [www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm) (UZEIk 87an egindako bankuaren oinarrian), hain zuzen ere terminologiaren erabiltzaileentzako erreferentzia dena; eta, bestetik, 2002an Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen baitan<sup>1</sup>, Batzorde-atal Berezi bezala. Terminologia Batzordeak dituen egitekoen artean, jarduketa-plana egitea, terminologia-lanerako irizpideak finkatzea eta terminoak proposatzea, onartzea eta gomendatzea daude.

<sup>1</sup> Azken dekretua: 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.



Batzordeak martxan jarri zenetik hainbat lan burutu ditu:

- a) **Terminologiaren arloko lehenetsunak ezarri ditu:** Irakaskuntza (bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitate-maila), enpresa-mundua, teknologia berriak, hizkuntza-paisaia (ekonomi jarduerak, errepideetako errotuluak, toki publikoetako kartelak eta produktuen eta tresnen etiketak, jatetxeen menuak eta abar) eta herri-administrazioa.
- b) **Terminologia-lanerako irizpideak proposatu ditu:** lanerako hiru funtsezko dokumentu onartu ditu Batzordeak ([www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) *Euskararen Corpusa eta Teknologia Berriak* atalean kontsultagai):
1. Irizpide linguistikoak (Hiztegi Batuan oinarrituak), irizpide terminologikoak eta irizpide soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak.
  2. Maileguen eta kalkoen gaineko irizpideak.
  3. Normalizazio-txostenaren eredua, arazoak sortarazten dituzten terminoen kasuan erabiltzeko.
- Horretaz gain, *Terminologia-arazoaren Inbentarioa* ere egin du, euskarazko neologia-sorkuntzaren (eratorpena eta hitz-elkarketa) inguruan dauden zailtasunak biltzeko asmoz.
- c) **Termino sinonimoen artean lehenetsunak ezarri ditu** terminoei ponderazio-markak jarritz:
0. Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
    1. Termino erabilia (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)
    2. Termino proposatua (adituek proposatua baina oraindik Terminologia Batzordeak normalizatu gabea)
    3. Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
    4. Termino normalizatua/gomendatua
- d) **Egindako terminologia-lanak onartu ditu:** 2008an 21 hiztegi onartu zituen Terminologia Batzordeak. Horietako 20ren argitalpena aurkezten dizuegu gaur. Ikus ditzagun hiztegiak Terminologia Batzordeak lehenetsitako esparruen arabera:



- **Hizkuntza-paisaia: Merkataritza eta Kontsumoa (esparru sozio-ekonomikoa)**
  1. Jatetxe, Taberna eta Kafetegieen Hiztegia
  2. Hipermerkatuetako Produktuen Hiztegia
  3. Kirol-materialen Hiztegia
  4. Merkataritza-guneetako Errotuluen Hiztegia
  5. Bulego-materialen Hiztegia
  6. Arropa-denden Hiztegia
  7. Oinetakoen Hiztegia
  8. Elektrizitate-denden Hiztegia
  9. Altzarien Hiztegia
  10. Iturgintza Hiztegia
  11. Turismo Hiztegia
  12. Errotuluen Hiztegia
  13. Lanbideen Hiztegia
  
- **Irakaskuntza (Lanbide Heziketa, Unibertsitatea)**
  14. Norbere Irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika Hiztegia
  15. Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinu Hiztegia
  16. Soziolinguistika Hiztegia
  
- **Teknologia Berriak (Informatika)**
  17. Bulegotika Hiztegia
  
- **Herri-administrazioa**
  18. Toki Administrazioaren Hiztegia
  19. Datu Babesari Buruzko Hiztegia
  
- **Bestelakoak**
  20. Laburtzapenen Hiztegia

Hauek dira, esan bezala, gaur aurkezten ditugun argitalpen berriak.



Bestalde, aipatu bezala, 21. hiztegia ere onartu zuen Batzordeak, hain zuzen ere, *Ingurumen hiztegia*; Ingurumen Sailaren ekimenez egindako hiztegia da eta sail horrek eskaria egin zion Terminologia Batzordeari normalizazio-prozesuan sar zezan.

### **Funtzionamenduaren, desgaitasunaren eta osasunaren nazioarteko sailkapena (FNS)**

Aipatu ditudan hiztegi horiez gain, Terminologia Batzordeak beste lan oso garrantzitsu bat onartu du: "Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena (FNS). OSASUNAREN MUNDUKO ERAKUNDEAK eginiko eskuliburu bat da berez. OME erakundeak, eskuliburu honen bitartez, munduko herrialde guztiei proposatzen die esparru soziosanitarioan erabili behar den terminología bateratzea; hain zuzen ere, esparru honetan gurutzatzen eta uztartzen baitira osasun edo medikuntzaren alorreko, gizarte edo komunitate gaietako eta lege-araduietako terminoak. OMEk mundu osoan eta hizkuntza guztietan era bateratuan erabiliko diren kontzeptuak eta terminoak definitu eta proposatu ditu, herrialdez herrialde eta hizkuntzaz hizkuntza egokitu eta bateratu daitezten. FNSa egiteko oinarrizko lana hiru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako gizarte gaietako departamentuek bultzatu dute, eta UZEIk berak eraman du aurrera. Eskuliburu honekin eta lehendik egina dagoen OME beraren Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenarekin (GNS), Osasunaren Munduko Erakundeak gomendatutako irizpide lingüístico bateratuak erabiltzen dituzten hizkuntza aurreratuenen multzoan txertatzen da euskera.

Hiztegi guztiak EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan egongo dira integratuta eta, hortaz, doan kontsultatu ahal izango dira [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) helbidean.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina, metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen ari dena, hain zuzen ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketaren arabera. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Une honetan EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoak 457.066 termino biltzen ditu.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari da. Horretarako, bi erakundeok hainbat hitzarmen izenpetu dute Bankua eguneratzeko lanak finantzatzeko.

Gaur aurkezten ditugun hiztegiak UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin ditu EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan.

Terminologia Batzordeak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegiak, normalizazio-prozesuaren barruan, lehenengoz, hizkuntzalariez eta landutako eremuko adituez osatutako batzorde teknikoek aztertu eta landu dituzte, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hiztegi hauetan duzue eremu hauetako terminologiaren erabiltzaileei Terminologia Batzordeak gomendatzen duen terminologia.

Hau da, hortaz, Terminologia Batzordearen lanen fruitua, orain guztien eskuetan jarri nahi duguna. Espero dugu hiztegiak jorratzen duten eremuetako erabiltzaileen premiak asetzeko oso baliagarri izatea, bai eta euskararen normalizazioaren bidean urrats garrantzitsua ere. Hiztegi hauek guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok.

Argi dago, Batzordeak gomendatutako terminologiaren zabalkundea egin eta gero, behar-beharrezkoa izango dela, hemendik epealdi batera, Terminologia Batzordeak 2008ko Jarduketa-planean jasotzen duen egiteko bat gauzatzea, hain juxtu gomendatutako terminologiaren ebaluazioa egitea, hau da terminologia horren ezarpen-maila edo arrakasta neurtzea.

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak behar-beharrezkoak dira. Hizkuntzak etengabe aldatzen ari dira bizirik badaude, eta, hortaz, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Hori dela eta, hizkuntza elikatu egin behar da eta euskararen elikadurak bi arlo nagusi ditu: sorkuntza eta kontsumoa. Helburu horri jarraituta argitaratzen



ditugu eskuartean dituzuen hiztegiak, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko dutenak.

Gaur 6 hiztegi eskaintzen ditugu baina datozen asteetan gainerako guztiak guztion eskura izango dira.

Nire eskerrak lanean parte hartu duten guztiei, UZEIri hiztegien egile bezala, hiztegiak aztertu eta landu dituzten batzorde teknikoetako kide guztiei eta Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzorde-atal Bereziko kide guztiei.

Guztioi Eskerrak eta Zorionak egindako lan emankorrarengatik!

**Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea**  
**Donostia-San Sebastián, 2009.04.30**